

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

EIBARKO UDALA

Dirulaguntza deia: dirulaguntzak igogailuak jartzeko eta ordezteko obrak egiteko eta fatxadak berriztatze-ko. Araubidea: ebaluazio bakoitzua. BDNS (Identif.): 516369.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/516369>).

1. *Dirulaguntzaren xedea.*

DLOaren 23.2 artikulua eta dirulaguntza arautzen duten Oinarriek ezarritakoaren arabera, Udal honek, ondoren adieraziko diren egiteko hauetara zuzendutako dirulaguntzak emateko deialdia egiten du:

1. **Igogailuak jartzea:** Eskaera egiten den urtean bertan edo aurreko urtean amaitutako obrak eta jarduerak. Hona hemen: bizitegi-eraikinen barruan edo eraikinetara iritsi ahal izateko kanpoko aldetik igogailuak ipintzea edo igogailu zaharrak kendu eta berriak ipintzea; igogailu berria ipini eta 0 kotaraino jaisteko obra zibila egitea; modernizazioak; pegoraraino eta pegoraren eta igogailuaren artean dagoen desnibela gainditzeko, arrapalak, plataforma jasotzaileak, elementuren bat edo beste obraren bat egitea.

2. **Fatxadak berriztatzea:** Eskaera egiten den urtean bertan edo aurreko urtean amaitutako obrak. Hona hemen: eraikin bateko fatxada edo fatxadak konpondu edo berri edo fatxadak lehengoratzeko obrak, fatxaden bateratasuna apurtzeke eta egiturazko elementuei ezertan eragiteke. Diruz lagunduko dira baita eraikuntza-konponbideen aldaketa dakarten berriztatze-obra, fatxadaren jatorrizko baldintzak hobetzen dituztenak.

2. *Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak.*

Dirulaguntza hauek pertsona fisikoek edo juridikoek eskura ditzakete, betiere, DLOren 13.2 artikulua ezartzen dituen debeku horietako batean bertan ere sartzen ez badira; eta laguntzok ematea oinarritzen duen jarduera egingo balute Jabe Elkar-teei edo komunitateei ere laguntzok emango litzaizkieke, baldin eta DLOren 13. artikuluko 2. eta 3. atalek ezartzen dituzten debeku horietako baten eraginpean ez badaude.

Hona hemen laguntzak zertarako emango diren eta nortzuk jaso ditzaketen:

1. **Igogailuak jartzea:** Eraikinen jabe diren jabe-erkidegoek edo pertsona fisikoek edo juridikoek. Eraikinek ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte.

— Azalera erabilgarri osoaren hirutik bia etxebizitzetarakoa izatea; neurketa horretatik kanpo geratuko da beheko solairuaren edo etxabearen azalera.

— Hamar urtetik gorako eraikina izatea.

AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Convocatoria de subvenciones para la realización de obras de instalación y sustitución de ascensores y restauración de fachadas durante el año 2020 en régimen de evaluación individualizada. BDNS (Identif.): 516369.

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/516369>).

1. *Objeto de la subvención.*

De acuerdo con lo establecido en el artículo 23.2 LGS y en las Bases que regulan la subvención, este Ayuntamiento procede a realizar la convocatoria para la concesión de subvenciones dirigidas a:

1. **Instalación de ascensores:** Obras y actuaciones finalizadas el año de la solicitud o el inmediatamente anterior que hayan tenido por objeto la instalación o sustitución de ascensores en el interior de los edificios residenciales y en el exterior para acceder a los mismos, sustitución de ascensor con obra civil de bajada a cota 0, modernizaciones, así como las obras de instalación de rampas, plataformas elevadoras, instalación de elementos y cualquier otra obra que sirva para salvar el desnivel existente hasta el portal y entre el portal y el ascensor.

2. **Restauración de fachadas:** Obras finalizadas el año de la solicitud o el inmediatamente anterior que hayan tenido por objeto la restitución de la fachada o fachadas de un edificio a sus condiciones o estado original, sin que se produzca la alteración de la unidad compositiva, ni se incida en elementos estructurales. Serán subvencionables las obras de rehabilitación que supongan una modificación de las soluciones constructivas que a su vez deriven en una mejora respecto a las condiciones originales de la fachada.

2. *Requisitos para solicitar la subvención.*

Podrán acceder a estas subvenciones, siempre que no incurran en ninguna de las prohibiciones que se establecen en el artículo 13.2 LGS, las personas físicas o jurídicas y, en su caso, las Comunidades de Propietarios/as que hayan de realizar la actividad que fundamenta su otorgamiento, siempre que no se vean afectados por ninguna de las prohibiciones de los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la LGS.

En concreto, para cada área temática a subvencionar podrán acceder:

1. **Instalación de ascensores:** Comunidades de propietarios/as y personas físicas o jurídicas propietarias de edificios, que reúnan las siguientes condiciones.

— Disponer de un mínimo de dos terceras partes de superficie útil total destinada a vivienda, quedando excluida de éste cómputo la superficie de la planta baja.

— Tener una antigüedad superior a diez años.

– Hirigintzaren ikuspegitik egokitasuna gordetzea eta udal baimena eskuratzeko inongo mugarik ez izatea.

– Eraikina ez egotea lurreratzeko zorian, neurri baten erantsia edo barrutik hustua.

2. Fatxadak berriztatzea: Eraikinen jabe diren jabe-erkidegoek edo pertsona fisikoek edo juridikoek. Eraikinek ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte.

– Azalera erabilgarri osoaren hirutik bia etxebizitzetarako izatea; neurketa horretatik kanpo geratuko da etxabearen edo beheko solairuaren azalera.

– Hamar urtetik gorako eraikina izatea.

– Hirigintzaren ikuspegitik egokitasuna gordetzea eta udal baimena eskuratzeko inongo mugarik ez izatea.

– Fatxadako elementu guztiak tratamendu bateratu bat ematea (leihoei, balkoiei, itxiturei...) Ez da dirulaguntzarik emango elementuren bat fatxadako beste guztiek duten eraketatik edo koloretatik aldentzen bada, baldin eta lizentzia eskatzeko aurkeztutako proiektuan elementuok aldatzeko asmoa eta fatxadaren baldintza estetikoak bateratzeko asmoa islatzen ez bada.

– Fatxadetan eta balkoietan (barandatik gora) ezin da jarri baimenik ez duen instalaziorik (antenas, errotuluak, gas-galdarak edo bestelakoak). Teknikariek eta Hirigintza batzordeak aztertuko dute elementu horrek baimenik duen eta legeztatu daitekeen ala ez.

– Eraikina ez egotea lurreratzeko zorian, neurri baten erantsia edo barrutik hustua.

– Azken 10 urte hauetan obra berdinengatik beste udal dirulaguntzarik ez jaso izatea.

– Ez dira diruz lagunduko aireztapen patioetara ematen duten fatxadetako obrak edo eraikinetako beste barruko patio batzuetan egiten direnak. Ostera, uharte-patioetako fatxadetan egiten direnek dirulaguntza izango dute.

Igogailuak jartzeko eta fatxadak konpontzeko laguntzak jaso nahi dituzten eraikinetako titularrek EAT (eraikinetako azterketa tekniko) eginda eta aurkeztuta eduki behar dute laguntza hau jasotzeko eskaera egin aurretik, eraikinaren antzinakotasuna zein delarik ere. EAT aurkeztu beharko da Udalaren sarrera-erregistroan. Aurkezten denetik dirulaguntza eskaera egin arte dagoen gehieneko epea 10 urtekoa da.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

– Zenbatekoa: 200.000 €

4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu.

Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteko epea 2020ko azaroaren 20ra artekoa izango da (egun hori barne). Eskaera horiek deia egiten duen organoari zuzendu behar zaizkio eta onuradunak edo haren ordezkariak sinatu behar ditu; eskaerarekin batera, eskatutako dokumentazio guztia ekarrita.

Dirulaguntza eskaerak elektronikoki egingo dira www.eibar.eus udal webgunetik. Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, lizenpe txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.

Eibar, 2020ko uztailaren 20a.—Enrique Errasti, Kontratazioen eta Dirulaguntzen Unitateko zuzendaria. (3586)

– Encontrarse adecuados urbanísticamente y sin limitaciones para la obtención de licencia municipal.

– No encontrarse en estado de ruina, demolido parcialmente o vaciado en su interior.

2. Restauración de fachadas: Comunidades de propietarios/as y personas físicas o jurídicas propietarias de edificios, que reúnan las siguientes condiciones.

– Disponer de un mínimo de dos terceras partes de la superficie útil total destinada a vivienda, quedando excluida de este cómputo la superficie de la planta baja.

– Tener una antigüedad superior a diez años.

– Encontrarse adecuados urbanísticamente, y sin limitaciones para la obtención de licencia municipal.

– Disponer de un tratamiento unitario de los elementos de fachada (ventanas, balcones, cierres...). No se concederá la subvención en caso de que alguno de los elementos citados sea de color o composición diferente a los demás de la fachada, a no ser que en el proyecto presentado para la petición de licencia se prevea la sustitución de los mismos y la uniformización de las condiciones estéticas de la fachada.

– No presentar instalaciones no autorizadas como antenas, rótulos, calderas de gas u otras, ni en la fachada ni en los balcones por encima de la barandilla. Por los/as técnicos/as informantes y la Comisión de Urbanismo se analizará si el elemento discordante cuenta o no con licencia, y si es susceptible o no de legalización.

– No encontrarse en estado de ruina, demolido parcialmente o vaciado en su interior.

– No haber obtenido en los últimos 10 años otra subvención municipal por las mismas obras.

– No se subvencionarán las obras en fachadas de patios de ventilación u otros patios interiores de las edificaciones. Sí se subvencionarán en el caso de patios de manzana.

Los edificios cuyos titulares pretendan acogerse a las subvenciones para instalación de ascensores y reparación de fachadas, deberán haber realizado y presentado la ITE (inspección técnica del edificio), con anterioridad a la formalización de la petición de la correspondiente subvención, independientemente de la antigüedad del edificio. La ITE deberá haber sido presentada en el Registro de Entrada municipal, en un plazo máximo de 10 años anterior a la fecha de presentación de la solicitud de subvención.

3. Importe de la subvención.

– Importe: 200.000 €

4. Plazo y lugar de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de las solicitudes de obtención de subvenciones, dirigidas al órgano convocante y suscritas por el/la beneficiario/a o persona que lo represente, junto con la documentación aneja, será hasta el 20 de noviembre de 2020 (inclusive).

Las solicitudes de subvención deberán realizarse electrónicamente a través de la página web municipal, www.eibar.eus. Para realizar el trámite electrónicamente es necesario disponer de un certificado digital (B@K-Q, DNI electrónico, tarjeta de lizenpe, etc.).

Eibar, a 20 de julio de 2020.— El director de la Unidad de Contratación y Subvenciones, Enrique Errasti. (3586)